

XEDAPENA, 2023KO URRIAREN 16KOA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEARENA, AGINTZEN DUENA ERRADIOLOGIAKO MEDIKU ESPEZIALISTAREN KATEGORIAKO GAI-ZERRENDA GALDESORTAREN HUTSEN ZUZENKETA ARGITARA DADILA OSATEK-EN WEBGUNEAN ETA CAMPO & OCHANDIANO ENPRESAREN WEBGUNEAN, OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 28ko xedapenaren bidez, onartu egin zen plazak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, Osatek, S.A.-n aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi berezi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 30eko xedapenaren bidez, onartu egin ziren oposizio-lehiaketa bidez lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak, Osatek, S.A.-n destinoa duten erradiologiako mediku espezialisten kategorian.

OSATEKen webgunean eta Campo & Ochandiano enpresarenean 2023ko urriaren 5ean argitaratutako iragarkiaren bidez, erradiologiako mediku espezialistaren kategoriarako lehiaketa-oposizioko gai-zerrenda komunari buruzko galdetegia argitaratu zen.

Errakuntza bat ikusi da oposizio lehiaketa bidez erradiologiako mediku espezialista kategoriarako gai-zerrenda komuneko galdeketako galderen zenbaki korrelatiboan, eta Sozietatea eratzeko Estatutuek pertsonal arloan esleitutako ahalmenez baliatuz.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Erradiologiako mediku espezialistaren kategoriarako gai-zerrenda komuneko galdeketako hutsen zuzenketa onartzea, oposizio-lehiaketa bidez. Eranskin gisa agertzen da xedapen honetan.

Bigarrena: Xedapen hau OSATEKen webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/2022ko-enplegu-eskaintza/webosk00-otkcon/eu/>) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Bilbon, 2023ko urriaren 16an

Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz



Data/fecha: 2023 URR: 16

Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones

ZK / Nº: 110/2023